

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Igerategi Santa Cruz

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1927-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako kalean jaio zen eta txikia zela Idiazabal kalean Matxo taberna ireki zuten bere gurasoek. Aitaren izengoitia zen "Matxo", baina Joserren ustez aitak ez zuen batere gogoko edonork horrela deitzea. Zazpi urterekin eskolan hasi bai, baina tabernako lana zela-eta, ezin izan zuen asko joan. Ikasketarik ez izan arren, lanean ongi ikasia, Hernanin hasi zen zerrategi batean arotz. Lan hura, ordea, neketsua zen gorputzerako, eta ondoko tailer batera joan zen egur-tailan ikasteko gogoa zuela esanez. Han hartu zuten soldadu joan zen arte, eta itzuli zenean, lanik ez zutela esan zioten. Baina han ikasitakoak geroko lanetan ere bidea ireki zion; izan ere, beste tailer batzuetatik pasatu ondoren, aitak zerrategia ireki zuen eta Jose hasi zen han lanean. Gerora, zerrategi hura utzi egin behar izan zuen; oraindik martxan dagoen beste zerrategi bat ireki zuen orduan eta bertan eman ditu azken urteak.

Zintak

URN-024

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-05
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Eskolara oso gutxi joateko aukera

- **Erref:** URN-024/002
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Mutil koskorrak zirela, 7 urterekin hasten ziren eskolara joaten; Josek etxean geratu behar izan zuen amari tabernan laguntzeko, eta eskolara oso gutxitan joan zen.

2. 'Matxo' ezizenaren oihartzuna

- **Erref:** URN-024/004
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

<p>'Matxo' taberna jarri zuten. Aitaren ezizena Matxo zen, oso gizon indartsua zelako. Jose Hernanin hasi zenean lanean, berari ere Matxo deitzen hasi zitzaizkion, baina hori moztu egin zuen.</p>

3. Sagardoa egin eta tabernan edan

- **Erref:** URN-024/008
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:17:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Sagardoa egiteko bertako sagarrak erabiltzen zituzten; dolarean txikitzen zituzten, prentsatu... Inguruko sagardo onenetakoa egiten zuten beraiek garai hartan. Sagardoa egiteko prozesuaz eta garaiaz hitz egiten du. Lehen orain baino sagardo gehiago edaten zen. Tabernako bezeroak noiz etortzen ziren eta zer egiten zuten azaltzen du.</p>

4. Pilotan errepidean jokatzen

- **Erref:** URN-024/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Lehen ez zen kamioi asko igarotzen Urnietatik. Errepidean jokatzeko zituzten pilota partiduak etxearen paretaren kontra. Pilotan jokatzeko, beraiek egiten zituzten askotan pilotak trapu zahar eta harri koskorrekin. Ondo pasatzeko, dirua baino garrantzitsuagoa da giro ona.

5. Inguruko herrietara jaietara

- **Erref:** URN-024/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

19 urte inguru zituela hasi zen etxetik ateratzen, tabernan beti baitzeukan lana. Hernanira, Ergobira, Tolosara... joaten zen. Hernanin ezagutu zuen neska-laguna eta geroztik elkarrekin egon izan dira.

Transkripzioa

-Ni etxetik ez nitzan ateatzen, zenbat urtekin? Hemeretzi urtekin edo holakon bat hasiko nitzen ni etxetik ateatzen. Tabernan beti, beti tabernan. Ta hemeretzi urtekin hasi nitzan ateatzen. -Nora joaten zinen? -Noa? Hernanir. Hernania juten giñen eta Ergobia festetan Ergobia. Ta ez dakit, jun al giñen? Oilalumea ez dakit jun giñan behiñe. Geo hasi giñan Tolosaa juten. Tolosaa. Ta, bueno, Tolosaa ta, hara juten aspertu nitzan ta Hernanin andria [den honen] neskakin hasi nitzan ta akabo. Gerotik elkarrekin.

6. Infernutik ihesi zinera

- **Erref:** URN-024/015
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:27:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Urnietan dantza soltea egin behar izaten zen. Hernanin plazan sartzea infernura joatea omen zen; orduan, jendea Donostiara joaten hasi zen, zinera, neskari eskua sartzera.

7. Arotz izateko pausoak

- **Erref:** URN-024/016
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Arotz-lanean nola hasi zen kontatzen du: oholak eramaten aritzen zen, gerriko arazoak izan zituen, eta beste arotzeria batera joatea erabaki zuen, han arotz-lanbidea ikastera.

8. Hainbat lantegi ezagututakoa

- **Erref:** URN-024/018
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:31:59. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Salinas arotzeriara joan zen lanbidea ikastera: han altzariak egiten zituzten. Soldadutzara joatea tokatu zitzaion, baina, eta soldadutzatik itzulitakoan lanik ez zegoen Salinasen. Andoaingo arotzeria batean hasi zen orduan lanean. Handik Martutenera joan zen obra-kolokazioan lan egitera. Gerora, Donostiako tailer batean hasi zen.</p>

9. Aitarekin etxeko zerrategira lanera

- **Erref:** URN-024/019
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Hainbat lekutan lan egin ostean, aitak etxean jarri zuen tailerra, eta han hasi zen orduan lanean Jose. Gerora, lokala aldatu eta semearekin aritu izan da bertan lanean. Badira 22 urte lokal berrira, Igerategira, pasa zirena. Beraien lehenengo zerrategia non zegoen azaltzen du.

10. Ilargiaren garrantzia zuhaitzak botatzean

- **Erref:** URN-024/022
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:45:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lehen egurra urte guztian izaten zen, ez zen begiratzen noiz botatzen zen, baina horrek arazoak ekartzen zituen gero. Zuhaitzak botatzeko, ilargiari begiratu behar zaio; horri buruzko azalpenak ematen ditu.

11. Platanondoa ona da

- **Erref:** URN-024/024
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:46:41. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Bananondoa oso txarra omen zen, baina denborak erakutsi dio Joseri ezetz, ona dela.

Transkripzioa

-Platanua're oso txarra esaten due. Nun dakat platanua? Platanuakin indako mahia, eta hemen zeak'e bai, alkik'e. Alkik'e badia platanuakin iñak. Hok. Hau hala da, platanua.

-Zeorrek iña hori're.

-Bai. Danak, platanua.

-Txarra omen zala baiño.

-Baiño hoi're hemen batek esan zian bazakala ta bihar ote nun edo, hola esan zian. Ta "ona al da" ta, "bai, ona dek". "Beno, ona baldin baa hartuko dit baiño txarra baldin bada ez, e! Bueno, bota zak ilbeheran". Ta ez dakit zer zan, oktubrian edo nobienbre edo hola zan zerbait'e, eta "ilbeheran bota zak eta jungo nak". Eta geo etorri zan eta esan zian: "E, bota diu, e!". "A bai?". "Bai". Jun ta ikusi nun ta markatu nittun nundik moztu, ta geo moztu eaman taillerrea. Ekarri ta neonek zerratu nittun ta hor egondu dia.

12. Zilegi-mendiak

- **Erref:** URN-024/027
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zilegi-mendien mugak lehen non zeuden azaltzen du. Zilegi-mendiak basorako eta ganaduarentzat erabiltzen ziren. Gerora, zilegi-mendiak saldu egin zituen jendeak, trukean dirutza jasoko zutelakoan; Josek ez zuen bere zatia saldu.

13. Izoztearen ostean, sutea

- **Erref:** URN-024/031
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:07:11. **Bukatu:** 01:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>1956ko izoztearen ostean, 60ko hamarkadan sutea izan zen mendian. Su hura nola itzali zuten azaltzen du.</p>

14. Gurdia egiteko prozesua

- **Erref:** URN-024/034
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:11:43. **Bukatu:** 01:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Gurdia nola egiten den eta zer zailtasun dituen azaltzen du: pertika ondo egitea da zatirik zailena. Denborarekin eta esperientziarekin ikasten da.

Transkripzioa

-Gurdia nola itten dan. Zea haundiya du. Pertika itten, erdiko luzi hua itten da lantei txarrena. Hari forma eman eta. Hari zeak jartzen eta harek bihar dittun trastiak erasten eta zean eta. Pertika deitzen zaio ta pertika itten txarrena. Hua moldatzen. Ta ai ziñala okertu igual itten zitzazun, ta hua're noiz bota jakin in bihar ez okertzeko, ta zeñiek zakin noiz bota bihar zan. Ta hemen bertan zan beste bat gurdik arreglatzen zittuna, beste atton bat, ta hari zeatu ta harek esan noiz bota bihar zan ta. Ta harek esaten zun: "E, nik esango dit, jun eta ikusi ta txuxena baldin bado nik esango dit noiz bota, ta ekarri nei seittun". Ta harek esandakuan moztu ta ekarri harek esaten zun garaiyeen, eta seittun ta-ta-ta-ta ta handik lau eguneako gurdiai sartu. Ihartu ta ezer in be. Ta ni hortakua naiz gaiñea, e. Pertika bihar baldin baa, zenbat eta hezegua hobia. Zeatikan hue itten da ordun sekatzan ai dala enkojittu itten da egurra, ta enkojitzen ai dan bezela zeatzen ai da, estutzen; espigak eta zuluak eta zeak eta ai da ta, indartzen ai da. Ta "ez, iharra sartu, ihar-iharra". Ta iharra sartzen baldin bada segittun klik-klak-klik-klak, segittun hasten da. Ta geo "Eee!, lasaitu duk!, eta. Bai, kuñakin jun eta kuñakin di-da! estutzen.

-Hezia hobe.

-Hor be jakin in bihar baita. Ta hoik noiz ikasten [ohi] da? Zartuta geo, ez gaztetan. Iñork ez du esaten eta. "Ja-ja, espabilatuko haiz nahi baldin badek. Ikasiko dek denboakin".

15. Gurdiaren gurpilak egiteko artea

- **Erref:** URN-024/036
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:15:45. **Bukatu:** 01:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Gurdiaren gurpilak egiteko, artista behar zen izan. Gurpila egiteko prozesuaren gorabeherak aipatzen ditu.

16. Lerak egiteko prozesua

- **Erref:** URN-024/037
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:18:09. **Bukatu:** 01:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lerak egitea erraza zen: gurdia egitearen antzekoa zen, baina pertika motzagoa egin behar zen. Burdinak nola egiten zituzten azaltzen du.

17. Lurra lantzeko tresnak egitea

- **Erref:** URN-024/039
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:20:53. **Bukatu:** 01:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lurra lantzeko harria egitea erraza zen; zailena burdinazko hortzak egitea zen. Hare-makila nola eta zer materialekin egiten zen azaltzen du.

18. Gurdia egiteko egurra

- **Erref:** URN-024/040
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:23:33. **Bukatu:** 01:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Gurdiaren zatiak egiteko zer egur klase erabiltzen zuten aipatzen du.

Transkripzioa

Goldia eta lera eta hoik egur onakin egin biharko ziran. Zer egun klaserekin egiten ziran holako erremintak?

-Erremintak?

-Haitza, pagua, ze ibiltzen zan?

-Gurdiyan erruedak eitteko haitza ibiltzen zan. Eta pertika eityeko aketzia.

Eta gehiñak aketzia nahi izaten zuen. Aketzia gogorraua dalako aketzia.

Baiño haitza're ona. Oain, aketziak du "samago" esaten diyuena, gizona, izkiñako gizona txuri hoi gutxio du aketziak eta harek hobeto heltzen zion.

Eta haitzak berriz jeneral nola baitun asko, ta [agotzak] hua're sartu iten zion, ta handik bela izurratu itten zan.

-A.

-Gizena, gizena galdu itten zan eta.

-Asko jakin biharko da.
-Boo. Asko jakin? Ondo itten ezkeroz bai.

Igerategi Santa Cruz, Jose | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com